

BAZKIDEAK ERAKARTZEKO ETA FIDELIZATZEKO PROIEKTUA

ARIZMENDIARRIETAREN LAGUNAK ELKARTEAREN BATZARREAN 2025-5-15ean AURKEZTUA

Proiektua 2024an hasi da, ALEn talde bat sortuta, LEINN-Mondragon Unibertsitateko Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza gradu ofizialeko ikasle talde baten laguntzarekin.

Iaz egindako lanaren barruan, hauek nabarmenduko genituzke:

ALEri buruzko triptiko bat eta kartel bat egitea.

Elkartearen aurkezpen berria diseinatzea eta gure webgunea berritzen parte hartzea.

Sare sozialetan aktibatzea, LinkedIn, Instagram, Tik Tok, Facebook eta X, ALEk egindako ekitaldietan oinarrituta, Adimen Artifizialak sortutako bideoen bidez. Azarotik abendura 13.604 ikustaldi izan ziren.

Bazkideei Elkartearen pertzepzioari buruzko inkesta egitea. Bazkideen %20k parte hartu zuten, eta partaidetza esanguratsua iruditzen zaigu.

Kooperatiba eta erakundeetarako bisita plana prestatzea. Azaroan Fagor Taldea bisitatu genuen eta abenduan Fagor Arrasate.

Eta, azkenik, Zuzendaritza Batzordeak 30 urtetik beherako bazkideen kategoria berria onartu du, 30 euroko kuotarekin, Elkartea gazteekin bultzatzeko.

2025 honetan, proiektuan jarraitzea eta sendotzea dagokigu, 3 ardatzetan oinarrituta:

1.- Lehenik eta behin, iaz egin genuen inkestan oinarrituko gara; inkestaren emaitza gure bazkide guztiekin partekatu dugu, 6 emailen bidez. Hauek izan ziren ondorioak, bazkideen espektatiba eta hobetzeko iradokizunetan oinarrituta:

Mahai inguruak eta eztabaidak antolatu beharko lirateke (presentzialak zein birtualak), gaur egungo gaiei eta kooperatibismoaren etorkizunari buruz.

Elkartearen jardueri buruzko aldizkako komunikazioak egitea, gardentasuna hobetzeko.

Eta belaunaldi berriak erakartzea, ALEren etorkizuna ziurtatzeko.

Gainera, bi gai garrantzitsu atera ziren:

Bazkideek proiektuetan modu aktiboan parte hartzeko duten nahia.

Eta Arizmendiarrietaren legatuarekiko konexio emozionala, ALEren aldeko konpromisoa indartzeko.

2.- Bigarrenik, sare sozialetako lanarekin jarraitzea. Badakigu pertsonak gero eta uzkurrago direla plataforma horietan aktibo aritzeko, baina bertan egotea beste erremediorik ez dago. Ildo horretan, gure ustez, belaunaldi berrientzat erakargarria izan liteke Linkedinen komunitate bat

sortzea, gazteekin batera, non proiektuetan mentore edo aholkulari gisa jarduteko prest gauden bazkide guztiek sarbidea izan dezakegun, gazteekin interakazioan aritzeko.

Gainera, bideoak, reel-ak eta abar eguneratuko ditugu, erakargarriagoak izateko, eta horrela link kopuruan goranzko boladan jarraitzeko. Aurtengo apirilaren 30era arte, 38.785 ikustaldi izan ditugu, eta Tik Tok sarea izan da aktiboena, 26.200ekin, Instagram 9.773rekin, eta LinkedIn 2.226rekin.

3.- Hirugarrenik, bazkide kopurua handitze aldera, kooperatibetara bisitak egiten jarraitzen dugu, eta aurten 4 bisita egin ditugu: Onnera Group, Orbea, Cikautxo eta Ederfil. Oraingoz, Onnera Group eta Gorbea Erakunde Laguntzaile gisa sartu dira ALEn, eta duela gutxi Fagor Taldearena gehitu behar diegu. Helburua hilean 2-3 kooperatiba bisitatzen jarraitzea da.

Pertsona fisiko bazkide berriei dagokienez, kanpaina indibidualizatu bat egiteko modua aztertzen ari gara, baita sare sozialen bidez ere, batez ere belaunaldi berriei zuzenduta. Hala ere, plataforma honetatik, gure bazkide guztiak gonbidatzen zaituztegu helburu horretan laguntzera, eta ezagutzen duzuen eta Elkartearekin lankidetzan aritzeko interesa duen jendearekin palanka lana egitera.

Augusto Araneta

ALEko bazkidea